

CHINGURRIYAK



Pareta autsi beltzean eta arbol zarrean,
lorategiyan, belardichoan eta lurrean;
begira egon izanaiz iñoiz logabeturik,
arrigarrizko oyen lanari mirariturik.

Egun berriya argitzerako gogoz nekean
asiko dira gelditu gabe Jesus betean,
erakutziyaz modu orretan alfer charrari
eta obeak generala uste degun danari.

Batek nekean jai! badarama gari alea,
lasterka joango zayo beste bat laguntzallea,
eta indarrez arrastatuaz biyak batean,
gari alea gordeko dute beren echean.

Mirari abek ikustekoak dira lanean,
alkar galazi gabe gogotsu egun danean:
bi errenkara joan etorriyan ala jarriyak
diruritelata maisu abillak erakutsiyak.

Bizitegiya egiten dute lur leorrean,
arbola baten oñean ero paret aurrean,
iru sarbide lur barrenera egiñak ala,
esan liteke gizon azkarrak landua dala.

Arbol sustrayak, azal samurrak eta legunak,
osto ebaki, lasto zatiak, belar bigunak;
orrela dute leorpechua ondo moldatzen
eta etzaye eudi tanto bat barrena sartzen.

Egite dana dute gogorra ta nekosoa,
lantegi ontan igarotuz uda osoa;
orreatikan bizitegiyan elkartutzean,
izaten dute jan aldicho bat negu beltzean.

Modu onetan eskudatutzen ditu goseak,
pasiaz elur eraso eta negu luzeak;
miragarritzko gauzarik bada lurren gañean
nik ezdakit zer arki liteken abek añean.

Beraren gandik ikasi bear dute gizonak;
beraren gandik, zeren diraden egite onak.
Oyen gisara baldiñ balira gobernariyak
¡nork daki zenbat irabaziko luken erriyak!

Beraren gandik datoz egintza egiazkoak;
berak dirade gure gidari baliyosoak;
gu bagiñake langille chiki oyen moduan,
¡zer zorionez bizi gindezken gero munduan!

¿Nork famatuko ezditu ziñez chingurrichoak
jakiñik nola bizitzen diran beti gaisoak?
Egaa luzedun illunak eta chiki gorriyak
denak dirade egiyetako nekazariyak.

Langille leyal abillak eta obedituak,
gizon askori erakusteko sortutakuak.
Fede biziyan zubengatikan esana nago:
«Baliyo dute oyek nik baño askoz geyago».

VICTORIANO IRAOLA.

